

Karta bakarra eta doakotasuna

Sare 1, 7 mediateka

Larrungo mediateken sarea

Arbona- Azkaine- Ziburu- Getaria- Senpere- Donibane Lohizune- Sara

Hamabost urte pasa ondoren, zazpi mediateka kontatzen dituen Larrungo mediateken sareak, bere funtzionamendua modernizatzen du.

Urririk da eta denontzat

Irailaren 4tik goiti, denontzat, ikasle, langile, erretretatu...mailegatze karta bakarra eta urririk bilakatzen da.

Karta hori eskuratzeko, nortasun agiri bat eta hiru hilabete baino gutxiagoko bizilekuaren frogagiri bat aurkeztu behar da.

Harpidetza urririk da eta urte batentzat balio du.

Karta hau pertsonala da eta sareko edozein mediatekaren bisitaldian aurkeztua izan behar da.

Karta honekin, harpidetuek sareko mediateka guztietan joaten ahal dira eta bertan diren dokumentuak mailegatu.

Harpidetuek, dokumentuak nahi duten mediatekan itzultzen ahalko dituzte (sareko koordinatzaileak antolatu duen joan-jinkariari esker).

Proposatua diren irekidura zabalek (104 ordu), erabiltzaileei interesatzen zaien ordutegiaren arabera, irekia den mediateka bat aurkitzeko parada eskaintzen diete, astelehenetik larunbatera.

Sarearen funtzionamendu berriaren abantailak

- 7 mediateketara joateko aukera karta bakar batekin
- 114 000 dokumentuz osaturiko kolezio bat (liburuak, diskoak, DVD-ak, audio liburuak, prentsa...)
- Urtean zehar erosiak diren 10 000 berritasunak ezagutu
- 20 dokumentu mailegatzeko aukera (edozein euskarritan), ta horietan 3 berritasun
- 10 dokumentu erreserbatu (edozein euskarritan), ta horietan 3 berritasun
- Dokumentuak edozein mediatekan jaso edo utzi
- Egunero eta 24ordu/24, kontu numeriko pertsonalean, urririk proposatuak diren filma, prentsa, auto-formakuntza eta musika, aukera zabal batetaz baliatu
- Urte osoan, urririk eta izena emanez, deneri irekiak diren (0 urtetik, 100 urtera) gure kultur hitzorduetan parte hartu

Sarearen taldeek, irailaren 4tik goiti itxoiten zaituzte karta berri hori eta zerbitzu berriak ezagutarazteko.